



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-05-23

VIII. URTEA 2.008. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ehunmilak, Europako Ultra Trail probarik gogorrenetakoa, gurean

KIROLA Uztailaren 16an hasiko da Beasainen eta 18an leku berean amaituko da; Tolosaldeko ere igaroko da

TONTORRAK Parte-hartzaileek Txindoki, Ganbo, Aizkorri, Erlo, Izazpi eta Ernio mendiak igo beharko dituzte 4-5



Ekialdeko dantzak izan ziren arratsaldean plaza Berrian Mundujaiaren baitan. I. TERRADILLOS

KULTURA NAHASKETAREN ABERASTASUNA

TOLOSA Ereite elkarteak antolatutako Mundujaiak hartu zuen plaza Berria; goizean tailerrak izan ziren eta arratsaldean dantza eta musika 6



Lizartzan Dantzari Txiki Eguna ospatu zuten atzokoan. A. BELAUNZARAN

Kulturaz betetako asteburua

KULTURASTEAK Bedaio, Berrobi, Lizartza eta Iruran ekitaldi ugari izango dira gaurkoan ere 7

paper eskola

escuela del papel

- ERDI MAILAKO ZIKLOAK**
Kimikagintza
Arztegi, Injini edo laborategietan lan egiteko
- GOI MAILAKO ZIKLOAK**
Análisi eta Kontrolako Laborategia (Eusk, Cast)
Edukio Industria-, osasun-, zain kimika-laborategian lan egiteko
Kimika Industriala (Eusk, Cast, Ing)
Kimika, papeleria, fundizio elaberetako enpreetan lan egiteko
- Zerbitzu puntua**
Papera, ontzi eta enbalaje, lan goitua, e-learning ikastaroak, berriztapen proiektuak, enpresa-zentrua....
- Urri bidezko jardunaldiak** (aukeratu ordua telefonoz edo gure webgune bidez)

Informazio gehiagorako sartu gure web orrira edo jarri informazio osoa edo etorri gure bulegoan
www.escuela-papel.com / info@escuela-papel.com / 943672900

Oporrik ez!



» Uzturretik Eneritz Otamendi

Aurten oporretara joateko asmorik bai? Ba asmo hori errefusatzeko zerrandien erants dezagun bat gehiago. Benetan pisuzkoa. Herri bezala epaitu koga-

tuzte. Non? Euskaldun askoren opor-leku behartuan, Madrilgo Audiencia Nacional-ean, euskal naziotasuna bankilloan. Uztailearen 15 etik aurrera 22 laguneko ekiptok ordezkatzuko gaitu partidan, baina Floren Arkotxak esan bezala eskuak lotuta jokatu beharko dute, hogeita bik, ez hogeita bira. 140 testigu defentsak aurkeztuak, 21 ez beste guztiak baztertuak (nazioarteko guztiak eta hiru probintzia txikienetako euskaldunak); 64 frogak defentsak aurkeztuak, guztiak atzera; 2 in-

forme perizial, atzera; eskuak eskuburdinez lotuta, alegia.

Udalbiltza, lehen euskal instituzio nazionala dugu. Euskaldunok aukeratutako 1.800 hautetsik baiezta emanda sortu zen, Euskal Herria nazio gisa aldarrikatzeko, Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzen laguntzeko, nazio eraikitza bultzatzeko eta udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzeko. Lan horretan jarraitu behar da, Udalbiltzari delitu terroristak egin izana leporatzen zaien irakurri duzun bezala! Hala ere,

defentsaren frogak guztiak atzera bota dituen epaileak ez pentsa inongo autotan arazoitzaren duenik zergatik hartzen duen izaera terroristak hori, ez eta salaketen frogarik eman ere, zertarako!

Hemen epaitzen dena herri bat da eta epaiketa honen xedea hori da, Euskal Herria kultur, jendarte, ekonomi edo politika esparrutik egituratzeko edozein jarduera kriminalizatzea; herri gisa errepertatuak izateko jarduerak guztiz legitimoak kriminalizatzea. Uztailean hasiko da epaiketa, abuz-

tuan gelditu, eta irailen jarraitu. Baina gu ez gara oporretara joango. Hemen herri bat epaitzen da eta herri bezala erantzun behar dugu, epaiketan egin ezingo den defentsa Euskal Herriaren aurrean egingo dugu, Udalbiltzaren lanaren defentsa eginez. Euskal Herria independente baten alde lanean ari garen guztiok daukagu Damoklesen ezpata zintzurran ziztaka. Epaiketa politiko guzti hauek geratzeko, ez geratu. Erasoaren aurrean erantzun!

Muxu handi bat pototi!

G Gutunak

Maiatzaren 25eko greba: langile klaseak batasun sindikala behar du

Krisi ekonomikoaren biktimak bakarrik langileak eta gazteria izan arren, patronalak, EB, FMI eta kapital handiaren gainontzeko erakundeak "aldaketa estrukturalak" eta murrizketa sozialak eskatzen aritu dira Zapateroren Gobernuari. Enpresari handien eta bankaren eskaera hauen aurrean amore emanaz, PSOEren Gobernuak erasoz betetako plan basati bat aurkeztu du. Beste neurri batzuen artean hauek aurkitzen dira: sektore publikoko langileen soldataren %5eko jaitsiera, pentsioen izoztea 2011n, jaiotzeengatik ematen den 2.500 euroko laguntzaren ezabaketa, 6.450 milioi euroko murrizketa inbertsio publikoan, Dependentsiako legearen laguntzen murrizketa eta medikamentu subentzionatuak eskuratzeko murrizketa.

Neurri hauekin estatuaren defizitari aurre egin nahi zaiola esaten digute. Baina errealtatean defizit hau bankari diru publikoko milaka milioi euro eman direlako sortu da eta ez guztiz sozialarengatik. Orain, defizita eta zor publiko murrizteko aitzakiarekin, langile familientzat plan gogor bat inposatzen dute, krisi ekonomikoaren arduradun nagusiei eragingo ez diena: bankariei eta enpresari handiei. Gainera, plan honek ez du krisia konponduko, ez du enplegua sor-

tuko eta ez dio gizartearen gehiengoari hobekuntzarik ekarriko. Plan honen helburu bakarra bankak eta enpresariak Estatuaren laguntza izatea bermatzea da beren negozioak egiteko.

Eraso hauen aurrean ELA, LAB eta STEE-EILASEk greba orokorra konbokatuko dute maiatzaren 25erako Hego Euskal Herriko sektore publikoan. Beste alde batetik, CCOO eta UGTk ere ekainaren 8rako greba orokor estatala konbokatuko dute sektore publikoan. Euskal Herria Sozialistatik uste dugu PSOEren herstura plan honi erantzuteko modu onena eraso hauek sufrituko dituzten langileen borroka bateratuarekin dela, kasu honetan Hego Euskal Herriko, Kataluniako, Galiziako eta Estatu publikoaren langileekin elkartuta.

CCOO eta UGTko agintariek arduraria dute gertatzen ari den guztiarekin, zeren mobilizazio bateratu eta masiboak bultzatzen dituzten urrun bake sozialaren eta kontzesioen politikak praktikatu dute. Politika desegoki bat defendatu dute eta agerian geratu zen gehiengo sindikalak konbokatutako 2009ko maiatzaren 21ko greba orokorra babestu ez zutenean. Orain, baldintza bereziki larri hauetan, Euskal Herriko gehiengo sindikalak maiatzaren 21ean hasitako bidea jarraitu behar du eta eraso hauen aurkako borrokan paper nabarmena jokatu. Hego Euskal Herriko langileez gain, Estatu

espainiarreko eta Europako langileak izan dira erasotutako. Horregatik uste dugu beharrezkoa dela gure indarrak elkartzea, langile guztiak eta erakunde sindikal guztiak ekintza batasuna bultzatzea. Borroka bateratuak ez du esan nahi euskal sindikatuen errebindikazioak defendatzeari edo sindikatu estatalki kritikatzeari uztea. Are gehiago, posible da eta beharrezkoa da, gainera; baina langile mugimenduen banaketak eta batasun sindikalaren gabeziak ez die ezertan laguntzen Euskal Herriko langileei ezta estatu espainiarrekoek ere.

Oso aukera ona dugu gure aurrean langile klasearen batasuna defendatzeko, langile internazionalismoa defendatzeko eta estatu espainiarreko langile mugimenduetarekin loturak sortzeko. Erabat bateragarria da estatu espainiarreko langileekin borroka bateratua defendatzea eta aldi berean autodeterminazio eskubidea defendatzea, LABek modu zuzen batean estatu frantziarreko greba orokorrak babestu zituenean frogatu zen bezala.

Herstura plan honek ez die eragiten sektore publikoko langileei bakarrik, baita gainontzeko langileei ere. Eta gainera, PSOEren gobernuak inposatu nahi duen lan erreformak sektore pribatuko langileei ere eragingo die. Sektore publikoko grebak egun ezberdinetan konbokatuko diren arren, pauso garrantzitsu bat izan daitezke langile

guztien greba orokor bat konbokatzea estatu mailan.

Sindikatu guztiak konbokatutako greba orokor batek, langile euskal herritarrek, kataluniarrek, galiziarrek eta espainiarrek elkartuz, mahai gainean jarriko luke langile klaseak duen potentzial handia modu bateratu batean borroka egiten duenean, Grezian gertatzen ari den moduan. Hau da Zapateroren plana atzera botatzeko eta etorkizuneko lan erreforma saihesteko bidea.

Ibon Artola, Euskal Herria Sozialista aldizkariako kidea.

Koadrila Eguna 2010

Eskutitz hau Koadrila Eguneko bazkariaren inguruan sortu den eztabaidagatik idazten dugu: Koadrila Eguneko antolatzaileok, gure artean izandako eztabaida eta kaletan jende askori egindako galdeketa osten bazkaria 'etxetik' eramatea erabaki dugu. Badakigu erantzunkizun handia dela eta batzuk ez direla erabakiarekin ados egongo baina aldaketa bat egiteko une egokia dela pentsatu dugu. Gure lehenengo asmoa bazkaria merketzearen, urterojendea kexu zelako bai prezioaz eta baita janariarekin ere. Katering ezberdinekin hitz egin eta gero, ezinezkoa da 20 euro baino merkeago jartzea bazkari txartela eta horren ondorioz kalean galdezka ibili garen janaria 'etxetik' eramateko aukerari buruz. Iritzi asko jaso ditugu, bai guztiz aldekoak eta bai guztiz aurkakoak ere, baina gehienbat alde entzun dugula ziurtatzen dugu. Azkenik, gure artean bozketan egin guren eta proposamen be-

rrri hau onartu zen. Beste herri askotan horrela egiten dute, guk zergatik ez? Zergatik ez gara saiatuko? Gaizki aterako ezker hurrengo urtean berri ere betiko metodora itzuli gaituzke, baina probarik egin gabe inoiz ezin da jakin.

Gure eginkizuna, proposamen hau ahalik eta erakargarrienean saiatzea da, eta horretarako, goizean janaria uzteko lokal bat eta beharrezko kubiertoak eskeinitzeko ditugu, bazkalorduan sagardoa eta ardoa eta bazkalondoren, barra librea eta kontzertu bat izango dira, dena Euskal Herria plazan, 3-4 euroko prezioan. (Egunean zehar ekitaldi gehiago izango dira, baina oraindik erabakitzeko daude.)

Gure ustez, modu honetara festa herrikoiak bat lortu daitezke, hartueman sendoagoak sortuz eta jaigiro dinamikoagoa bihurtuz. Aldiberean prezioa modu esanguratsuan murriztuko litzateke.

Zentzurik gabeko gauza asko irakurri ditugu interneten gai honi buruz, eta honekin gauza argitzea espero dugu. Gure intentzio onenarekin egindako aldaketa da, eta gu izango gara erantzuleak gaizki aterako ezker, azken urteetan hartu den erabaki garrantzitsuenak dela baitakigu. Hori dela eta, zentzugabea iruditzen zaigu errexena egiten ari garela entzutea, errexena 20 euro kobratu eta catering bati deitzea baita zalantzarik gabe, urtero egin den lez. Besterik gabe, zuten partaidetza eskertuko genuke, Koadrila Egunean garrantzitsuenak giroa delako, eta giro hori inolaz ere ezin du zapuztu aldaketa batek! Eskerririk asko!

Tolosako Koadrila Eguneko antolatzaileak.

Tolosako Udala
IRAGARKIA

Tolosako Udalak, aldi baterako Ingarumen eta Herri Partaidetzako Erdi Mailako Teknikaria kontratatu nahi du.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaltzeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharako 6 A zkin, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2010eko ekainaren 4an, 13:00etan, bukatzen da.

Tolosan 2010eko maiatzaren 18an.
ALKATEA,
JOKIN BILDARRATZ SORRON

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Villabonako Arroa auzoan etxebizitza alokatzen da. Egoera onean dago. Interesaturku deitu 943-67 60 82 telefonora.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen dira. Interesaturku deitu 618-25 49 71 telefono zenbakira.

A Argazki zaharra



82 urte beranduago

IBARRA ■ Ezagutzen al duzue irudian ikusten dena? 1928an ateratako argazkia da, baina ingurua ez da gehiegi aldatu. Izaskungo Ama Birjinaren eliza da, ho-

nen bueltan makina bat erromeria egin dituzte urte guzti hauetan, eta gaur ere, jaietan daudenez izango da jai giroa. INDALECIO OJANGUREN-GIPIZKOAKO ARTXIBO OROKORRA

Z Zurea da hitza



Tolosa&Co

Azkenaldian Euskal Herrian ohiko bihurtzen ari da proiektu berrien izendapenetan atzerriko hizkuntzen hitzak erabiltzea: Tolosa gourmet, Topic ... Euskarak ez al du gaitasunik horretarako? Joxemi eta Felix pertsona jantziak eza gututa uste dut baiezkoa pentsatuko dutela.

Hezkuntza sailburuak hiru eleen apustua bultzatzeko asmoa agertu du eta Toloxar merkatarik elkarrekin amua irentsi du eta Tolosa&Co marka hobetsi du.

Hooliganak erakartzeko nahia ote dute? Aurkezpenean azaldu zuten marka erraz uzartu daitekeela merkataritzarekin. Galdeke-

ta batean %0,1-ek asmatuko luke? Juanan (txikia baina pertsona ona) psikologoak esaten du gizartearen bilakaera ikusirik, ez dela batere harrizkoa izango, urte guzti barru, besteak beste Iñaki Gorrotxategi eta Zumbeltzeko Agus kondenuatuak izatea ingelesez mintzatzera bezeroekin.

Jose Ignazio Imaz.

Usabal kiroldegiko eskailerak

Usabal kiroldegira joaten naiz ia egunero. Batzutan bakarrik, kirola egiteko, eta beste askotan umekin, atsalde pasa, eta badut kexa bat.

Aspalditik plazaratu nahi nuen,

baina... aspaldiko kontua baita. Igandeetan - berez jai eguna izanda Kiroldegia erabiltzeko egunik aproposena nere ustez, baina gautza bera esan dezaket liburategien inguruan, kultur etxean eta beste zenbait 'zerbitzu publikoen' inguruan- itxita egoten da, baina ez taberna, eta beraz, tabernara joan nahi izanez gero, nola igotzen naiz umeen karritoarekin? igogailua dago bai, baina barruan!! eta jai eguna da, itxita dago!! beraz, karritoa besotan hartu eta gora! Eta elbarritua banaiz? eta muletekin banaibil? eta nire aiton xaharrak igo nahi badu?... ranpa bat jartzea horren garestia al da? hori al da arazoa?

Gurasoa.

Giro paregabea Berdura plazan

Azoka ■ Eguraldi onak lagunduta jende asko ibili zen atzo azokan; udaberriko barazkien salneurriek behera egin dute.

PABLO ALBERDI

Atzoko eguraldiak asko lagundu zuen Tolosako azokan. Oso giro ederra izan genuen goizeko lehenengo orduetatik, eta ez ziren gutxi izan beraien erosketak azokan egin zuten pertsonak.

Berdura plazako postuak gainezka egon ziren goiz osoan. Giro paregabea zela eta, eta nola aste

honetan ez duen euririk egin, oso momento onean daude baratzak landatzeko. Hauxe izan zen hainbeste jende postuetatara bultzatu zuena, eta egia esanda salmentak oso onak izan ziren.

Zerkausiko eskaintza ere ez zen bat ere eskasa izan, eta asteak aurrera dihoaztela, udaberriko barazkien prezioak behera dihoazte. Baba eta ilarra izan ziren nagusi. Perretxikozerrenda ere oso zabala izan genuen.

Datorren astean apaingarriko landareen azoka berezia ospatuko da Tolosan. Hori dela eta, eskaintzak gora egingo du, aukera handituz.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.		
Landareak			
Alegria	1,50	2,00	
Menta	1,50	6,00	
Albahaca	1,50	6,00	
Zainzuria	2,80	-	
Zilantroa	1,50	-	
Geraneoa	2,80		
Berbena	3,00	-	
Salbia	1,00	1,20	

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoak	30,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Zizak	10,00	36,00
Mortxela	20,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,00	3,00

Barazkiak (kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Porruak	1,00	4,00
Ilarrak	10,00	12,00

Babak	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarrun zuria	8,00	-
Patata berria	1,50	2,00
Tomatea	3,25	4,00
Bainak	3,00	4,00

Fruta

Kivia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Perretxikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kilo)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

Barazkiak (sorta)

Tipula	1,75	2,00
Zerba	2,00	-
Erremolatxa	1,60	-

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Capoeira erakustaldi polita

TOLOSA » Capoeira erakustaldia izan zen atzo ikusgai Santa Maria elizaren ondoko plazan, Jurasiko parkean, hain zuzen. Erakustaldi honetan, Aldeia de Bambas taldeak parte hartu zuen, eta baita ezintasun intelektuala duten Goienetxe fundazioko kideek. Azken hauek capoeira ikasten egon dira, eta atzo, ikasitakoak erakusketako aukera izan zuten. A.B.



Krisiaren inguruan parodia eginez

TOLOSA » Antzezlan berezia izan zen atzo ikusgai Triangulon. Izan ere, Aralar alderdiak egungo krisi egoeraren inguruan parodia egin nahi izan zuen Patxi Santamaria aktorearen eskutik, gobernuek hartutako neurriak salatuz eta horrela herritarrek gogoetara bultzatuz. Alderdiak bere lehen agiria argitaratu eman zueneko hamargarren urtemuga bete zuen atzo. R.C.

Aniztasunean aberasten

Tolosa » Ereite elkarteak antolatuta, Mundujaia ospatu zuten egun osoan plaza Berrian; tailerrak eta dantzak izan ziren.

ERREDAKZIOA

Kulturen nahasketaren aberastuna da egungo gizarteak duen ezaugarrietako bat. Gure eskualdea ere ez da atzean geratzen jatorri ezberdineko herritar ugari bizi baita bertan, eta aniztasun hori erakutsiz eta Kultur Aniztasunaren Eguna herenegun izan zela aintzat hartuta, Mundujaia antolatu zuen atzo Ereite elkarteak.

Ekimen honen helburua ekitaldietan parte hartuz inguruan ditugun kultura desberdinak ezagutzera izaten da, eta asko izan ziren horretara plaza Berrian jarri zuten haimara hurbildu zirenak, gazte-oxoak batik bat. Bertan, idazkera arabiarra ezagutu ahal izan zuten, munduko jokoetan jolastu, henna tatuajeak egin, txapa tailerrean parte hartu, lurralde askotako eskulanez galdetu eta pintxoak eta tea dastatzeko aukera ere izan zen.

Bertako eta kanpoko dantzak

Goizean tailerrak izan ziren protagonista, eta arratsaldean, berriz, dantzak hartu zuen lekukoa. Ekialdeko dantzekin hasi ziren, eta ondoren Alurrekoek bertako dantzak erakutsi zituzten. Iluntzean kubatar doinu eta dantzek hartu zuten plaza Berria. Gauean, berriz, Afrikaren txanda izan zen, Africa Baj Yairen perkusio sene-galdarra izan baitzen eritimoa jartzaren ardura izan zuena.



Arratsaldean dantza eta musika izan zen nagusi. I.T.



Idazkera arabiarraz gehiago ikasi zuten gazteok. R. CALVO

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaia eta BaskinBox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARREMANETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo duugu BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaia-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZULU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Aranalde eta beste lau atxilotuak Parisera eraman dituzte

Ibarra » Herritarrek prentsaurrekoa eskainiko dute gaur 20:00etatik aurrera herriko plazan.

ERREDAKZIOA

Maite Aranalde ibartarra eta Mikel Karrera Sarobe, Arkaitz Agirregabiria del Barrio, Eñaut Aramendi eta Laetitia Chevalier Baionatik Parisera eraman zituz-

ten atzo. Epaileak Parisen hartuko die deklarazioa joan den ostegunean Lapurdin ETArekin lotura dutelakoan atxilotu eta gero. Frantziako Poliziak atzeman zituen.

Ibartarra eta Karrera zein Agirregabiria ETArekin arlo militarrekin lotzen dituzte, eta Aramendi eta Chevalierri kolaborazioa leporatzen diete.

Mobilizazioak herrian

Atxiloketen ondotik, Ibarra mobilizazioak izan dira.

Ostegunean bertan elkarretaratzera egin zuten, eta ostiralean ere egiteko asmoa zuten, baina herrira bertaratutako Ertzaintzaren «jarrerara oldarkorra» ikusita, bertan behera uztea erabaki zuten.

«Oso modu txarretan» aritu ziren ertzaik eta pertsona bat behintzat identifikatu zuten.

Hau guztia dela eta, prentsaurrekoa eskainiko dute gaur 20:00etan herriko plazan. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliag banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

Kultur Asteek girotu dituzte Bedaio, Berrobi, Lizartza eta Irura

Kultur Asteak » Musika, dantza, hitzaldia, jolasak eta bazkariak izan dira protagonista larunbat eguzkitsuan.

ERREDAKZIOA

Lizartzan, Dantzari Txikien Eguna eman zioten hasiera egunari. Eskualdeko zazpi herritako dantzariak bildu ziren; Lizartza, Alegia, Villabona, Hernialde, Ibarra, Tolosa eta Anoeta. Herrian zehar, txistularien doinuekin dantza ezberdinak eskaini zituzten. Hamaitakoa ondoren, talde guztiek, agurra, fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten.

Irurako Ikastolakoak ere festa giroan bildu ziren. Herriko plaza-tik, kalejiran iritsi ziren ikastolara. Goizean umeentzako jolasak egin zituzten. Ikastolan bertan ere, ikasleek egindako eskulanean erakusketa jarri zuten ikusgai. Ondoren bazkarian 240 pertsona bildu ziren: ikasle, guraso, irakasle eta ikasle ohiak. Bazkalostean, marisako kaxak zozketatu ziren. Musika-ekin eta dantzarekin eman zioten amaiera egunari.

Bedaion, *Aralar eta Bedaio* hitzaldia eman zuen Aranzadiko kide den Juantxo Mauleonek. Hitzaldian, Katmandurekin egin zu-

ten konekzioa, Asier Izagirre mendizalearekin. Hitzaldiaren ostean, afaria egin zuten Artubi elkartearen. Gaur, mendi ibilaldia antolatu dute. 11:00etan da hitzordua, Artubi elkartearen. Arratsaldean, haurrentzako musika tresnen lanteria egingo da.

Berrobiko plazan, trikiti doinuek alaitu zuten larunbat eguzkitsua. Herriko gazteek eskainitako ikuskizunean herriko dantzariak ere hartu zuten parte.

Kultur Asteari gaur emango diote bukaera Berrobin. Eguedian, txakolin dastatzea izango da udal-letxe aurrean.



Berrobin trikitiak jotzen eta abesten egon ziren plazan herriko gazteak. I.T.



Iruran ikastolaren egunean jolasak izan zituzten gazteek plazan. Bedaion, berriz, Juantxo Agirrek hitzaldia eman zuen eta Asier Izagirrerekin hitz egin zuten. A.B.



Giro polita eta jendetza Izaskunen

IBARRA » Urteroko ohitura den bezala, zaldi lasterketa izan zen atzokoan nagusi Izaskungo jaien baitan. Eguraldi ederrak lagundurik jende ugari gerturatu zen Ibarako auzora. Gauean bertso afaria izan zuten. Gaur-

koan, berriz, herri kirolak izango dira eguedian, eta bazkariaren ostean, bertsoak. Arratsaldean umeentzako jolasez gain, pintxoak eta sagardoa dastatu ahaliko dira, eta ondoren trikitiak izango da. I.T.

Euskal sukaldaritzaren errezeta ezagunenak
José Castilloren eskutik

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 3. alea

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan 12€

Aurreko bi aleak ez badituzu esuratu, eskatu orain. Hirugarren alearekin batera jasoko dituzu.

EGIN ESKAERA ekainaren 11 baino lehen www.berria.info harpidedunak@berria.info 943-30 43 45

Laguntzailea FAGOR www.fagor.com

ALBERTO GONZALEZ 9433 84582/943322 **berria**



23°
16°

GOIZA LAINOTUTA
ARRATS. EURIA
BEROENA 25°
HOTZENA 15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Ekomuseoak ireki ditu ateak

LARRAUL • Herriko ondare historikoa bildu duen museoari ateak zabaldu zizkieten atzo Larraulen. Goizean herriko plazan tailerrak egin zituzten; buztina eta egurra eraldatu zituzten, sendabelarrekin olio egin zuten

eta ogia ere egin zuten, besteak beste. Bazkariarekin eman zioten segida egunari. Bazkalostean Txurigaingo errota bisitatu zuten. Bolatokiaren inaugurazioarekin eman zioten amaiera festari. A.BELAZUNZARAN

A Agurrak



Zorionak!

Maialen Zubeldia Azkolain (Ibarra).

Gaur 2 urte. Zorionak birramona Tereren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** L'homme dibuixat konpainia valentziarraren *Piedra apiedra* haurrentzako antzezlanen Topic-en 12:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *La niñera magica* haurrentzako filma Leidor aretoan 17:00etan.

Jaiak

■ **Ibarra.** Izaskungo jaiak: 12:00etan idi-proba: Olasagastiren idiak Garmendiaren aurka; 14:30ean herri bazkaria; ondoren Egaña eta Zubeldia bertsoariaren emanaldia; 18:00etan Gorriti eta bere animaliak; ondoren pintxo eta sagardo dastatzea (Zabala, Aburuza, Gaztañaga, Insalus eta Sarasola sagardotegiak gerturatuko dira Izaskunera); eta 19:00etan herriko trikitalariaren eskutik erromeria.

Aisialdia

■ **Lizartza.** Kultur Astea: 11:00etan hamaiketako elkarteak; 12:30ean pilota partidak; 14:30ean helduen bazkaria, dohainik; 18:30ean antzerki emanaldia Higa antzerki taldearen eskutik, *Ene poltsa eta biok lana* taularatuko dutelarik.
■ **Irura.** Kultur Astearen bukaera: 11:00etan meza nagusia izango da eta ondoren Irurako dantzari txikien saioa.
■ **Berrobi.** Kultur Astea amaitzeko, 12:00etan txakoli dastatzea egingo da eta honi laguntzeko antxoilak eta gazta ere banatuko dute bertaratutako en artean.

Kirola

■ **Zizurkil.** XII. Biatlioi Herrikoirako Zizurkil goiko plazan 10:00etan 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Amaieran, hamaiketako egingo da gurasoekin eta Biatlioian parte hartu dutenekin.
■ **Leitza.** 12:30ean, Udalak antolatuta, herriko kirolariei omenaldia eta kirol saioa, Kultur Astea hasteko.

■ **Tolosa.** 11:00etatik 13:00etara Usabalgo kiroldegian saskibalo teknifikazioarako jardunaldia 1998, 1999, 2000 eta 2001 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Informazio gehiago www.takesb.com webgunean sartuta edota takesb@takesb.com helbidera idatzita.

Deialdiak

■ **Txarama.** Txaramako jaietako afaria hilaren 29an 21:00etan izango da. Txartelak erosteko azken eguna asteazkena izango da. 30 euro balio dute eta asteartean elkarteak 20:00etatik 21:00etara erosi daitezke, edo 650-27 65 10 (M. Jose) edo 646-64 22 67 (Amalia) telefonoetara deituta.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarrera, 1. 943 67 36 49.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 5. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AROTZERI ETA ALTZARI FABRIKAZIO ikasketak



**AURREMATRIKULAZIOA
MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 1 IRA**

Zatoz ezagutzera
(instalazioak, makinaria, laborategia . . .)

ATE IREKIAK:

- Maiatza 27 osteguna arratsaldeko 6:00 tatik aurrera
- Maiatza 29 larunbata goizeko 10:00 tatik aurrera
- Beste egun batean nahi izanez gero deitu aurrera

UROLA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA
Altamira auzoa z/g 20720 AZKOITIA
Tel. 943 852174/943 851507